

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ERRIBERAGOITIKO UDALA

#### 2020ko JEZa ordaintzeko borondatezko epea

Jesus Berganza Gonzalez Erriberagoitiko Udaleko alkate-lehendakariak,

Jakinarazten du: Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2020ko ordainagiriak kobratzeko moduan daudela.

Borondatezko epea 2020ko azaroaren 1ean hasi eta abenduaren 31n bukatuko da. Epe hori bukatutakoan, ordaindu ez dutenei kuotak premiamenduko betearazte bidez kobratuko zaizkie, ehuneko 20ko errekaruarekin, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banketxe edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal izango dutela ordainketa, udal bulegoetan hala eskatuta.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta izaten jarraitzen badute, ez dute inolako izapiderik egin beharko, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Bankuko helbideratzean altarik edo aldaketarik egon bada, Erriberagoitiko Udalari horren berri eman behar zaio; baita interesduna etxebizitzaz aldatu bada ere, aurrerantzean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2020ko urriaren 29a

*Alkatea*

*JESÚS BERGANZA GONZÁLEZ*